

## **Gata Lurmuturra: Itsas-Erreserba.**

Iberiar penintsulako hego-ekialdeko paisaia idorretan, noizbehinka bizitzaz beteriko oasi hipnotikoak agertzen dira duna eta padura artean.

Itsasora begira eta begiak iristen diren lekura arte, haizeak eta olatuek Gata lurmuturreko mirarizko labar bolkanikoak lantzen jolasten dute.

Itsasargiaren oinetan itsas-lamien kantu erakargarriak ezkututzen dira, Almeriako itsasertz malkartsu eta magiko honetako arrakala eta zulo artean.

Gainazalaren azpian, harmoniatsua da itsas hondoa. Posidonia oceanica-ren larre berdeek, hareazko hondo zabalek eta harrizko formazio lirainek ematen diote forma ekosistema konplexu honi.

Espezie, habitat eta paisaia aniztasun handiak Gata lurmuturra eta Nijar batzen dituen arrantza eta itsas-erreserba aberasten du. 1995. urtetik, 4613 hektareatako eremu babestua, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren Itsas-Arrantzurako Idazkaritza Orokorraren ekimenari esker.

Hainbat tamaina eta koloretako ezin konta ahala arrainek beraien bizi funtzioak bete ahal izateko, leku paregabea aurkitzen dute hemen. Espezie batzuk itsas bazterreko hondo hauetan zehar ibiltzen dira elikagai bila, beste batzuk gaua iritsi arte edo uste oneko harrapakinen bat eskura izan arte iluntasunean ezkutatu ohi dira. Mosaiko itxurako Gata lurmuturreko itsas hondoa belaunaldiz-belaunaldi bizirauteko leku egokia dira.

Bai alga mota ezberdinez estalitako itsas hondo harkaiztsuek, bai hareazko bigunek bai fanerogamo larreek milaka organismo ezberdin batzen dituzten habitat ugari eratzen dituzte. Ondorioa espezieak orekan elkarbizi diren egitura konplexu eta perfektua da.

Eta itsaspeko txoko bakoitzak sorpresa bat ezkututzen du: Harrapakinak ehizatzeke garro luze eta iaiodun zerianto adintsuak eta polipo kolonia ugariz osaturiko gorgonia gorri ederrak.

Algek ere eginkizun garrantzitsua betetzen dute. Beraien ekintza fotosintetiko delata-eta, bizitzaren oinarria izateaz gain, alga fotofiloek erakusten dituzten forma eta tamaina ugariak funtsezko faktorea dira babesturiko itsas hondo hauetako biozenozi bentoikoaren aniztasuna ugaritzeko.

Izar gorria bezalako ekinodermoak, harrapari trebeak, edo itsas triku taldeak, belarjaleak, elikatu, babestu eta ugaltu ahal izateko lekuagatik elkarren artean lehiatzen diren organismoen adibide dira.

Hau da Gata lurmuturreko Itsas Erreserbaren uretako bizitza mosaikoan egunero ematen den biziraupenaren aldeko lehiaren ikuskizuna.